

Kateak

Denborraren argi azkoretik, mila galdera
Zangotan kateak, gizonen martxa trabatua
Erestan pausua, gogoa nola altxa
Kabaletik gizaki alderat eskuratzeko izaera
Hasi naiz abiapundutik, Oreagatik zergaitik
Lehen/azken segada eman eta geroztik
Beti ote gu ginen ta gera galtzaile
Beti ber berak gelditzen diren zapaltzaile ?
Nola Arano Beltza armairutik zen airatu
Mauroen zorigaitza herriari nahi inposatu ?
Arano kasatu, kateak bairatu,
noiz desegin gureak libertadea berosatatu ?
Ari karlista aroa arao bera zenik
Jakin nahi duzula orain foruak galdurik
UPNistek idatziko duten hixtorio ofizialik
Gai al gera gu, Nafaroa atxikitzeke zutik ?
Ikasi nuen, askatzaile frantsesen iraultza
Nork daki zergaitik Xaho edo Matalas ziren altxa ?
Urrats bat al zen hemen nesken bozen galtzea ?
Marseillaise-arekin goitikatzen dut heien goraltza
Zenbat euskaldun ere Franco-ren armadan
Hainbeste al ziren oldatzen gerraren zapartadan ?
Gernika giza laboratoriorio, herriotze jantzia
Picasso-ren postalen esan nahi ahantzia
Errefuxiatu biluzia Hesien atzean utzia
Inork egin al du Europaren kolaborazio auzia ?
Nahi nuke jakin nik, ingumak zainetan
Zauriak idekiak diren oraindik ze heinetan ?
Lurra txikitu, hizkuntza mututu,
kultura folklorizatu dute, zilegizko
historio nortasun betseari transmititu,
ez al da ohizko bidea kateak apurtzeko...

Kateak, idek burdinezko ateak, ditugu..
Kalteak, garen betiko zital, fisiko ala mental,
zauri eta itzal atzetik eresta ditzak
erantzun minez galdan dira galderrak...

Zenbat gogoetan galdu ote zira ondatua ?
Ze zamintasun uzteko gaztetsaun sasitara
Gartzelatua aita, ezagutua joanez bisitara
Eskema berdina askok ahalgabez errepikatua
Sakabanaketa gutartekoentzat ohitza
Ezin ikusiagatik, heien legeen sahieste
Preso, senide ta herriaren zigor hirukoitza
Oroitza ezin dezakete ahatik eraman ohointza
Zenbat itzal ?... Joxi, Joxean eta beste
Borreroaren aintzinean inungo iheste
Azazkalak atera, gorpua urra gixuz bete
Zergaitik gerra zikinari, denon begi heste ?
Zendako batzuk gelditzen, besteak inoiz itzultzen ?
Nun da Popo ?.. bainan oztopo
Gutiak zakurrek ezartzen
Hobendunekin lur azpian dute topo
Guri egurra, Gatito Lindori fereka
Egin al gaituzte heien Ardi Beltzak
Nun ote da demokraten justizi oreka
Kenduko al diote azkenean herriari hitza ?
Nolaz atzo ltsasuko akordio osatu
Gaur bokatzeko agindua emanaz Chirac-i ?
Aberri egun bakar bat ezin antolatu
EKA Kola ? EH Kola ? ez dugu aitzaki...
Zu ere al zaude hasiko garen ta noiz
Sozialismoa hitzetik hortzerat behingoz
Su etenak izango dira guztien esperoz
Bainan kateekin bukatuko al dugu inoiz ?